

Agurretan



**Jon
GARMENDIA**

Getxon, lehenengo faseko lehen saioko agurrean kantatu zuen Alaia Martinek «baina nik gogoko dut hormak pitzatzea/ patuaren aukerak amortizatzea/ bilatzen zailak diren hitzak ehizatzea/ ideiak su motel ta goxoz gixatzea/ olatuak kostari ez abisatzea/ ez al da hori bizitza inprobisatzea?», galdera nori bota zion zalantza gelditu zitzaidan. Hitzak ehizatu eta doinua jarrita finalera merezita ailegatu dela ez dut zalantzarik. Gotainen agurtu zituen zaleak Nerea Ibarzabalek, «maskaratuta daude gudan milaka hitz/ haien larru labainkor atzapar eta mintz/ baina adi bagaude lasai tentu handiz/ jaiotzen ikusiko ditugu lehen aldiz» kantatuta, eta hiltzen bezala sortzen, biziberritzen ikusi dugu bera txapelketan, gaztea izanagatik zein bertsolari heldua den gozatuz. «Lehorte garai hauetan buru askorik ez da lugorri/ sormenak lana ta esfortzua

izaten ditu jatorri», bota zuen lehen bertsoa Joanes Illarregik Elizondon, eta Picasso iruditu zitzaidan inspirazioa existitzen dela erranaz, baina lanean atzeman behar zaituela azpimarratuz. Gaztetasuna dakar leitzarrak, bertsoa hori da, zer izango den ez jakitea zehazki, baina disfrutatuko duzula jakinda. «Orain pluralizat dauzkagun hontan plazak ta bertsolaritzak/ nor gaude eta nor falta dira zer hartzen dugu herritzat/ mezu ezkorren udazken hontan/ mundua omen dago kolokan/ ta hara hemen argi printzak/ orain nahasten zaizkigun hontan zuriak beltzak ta grisak», Durangon Beñat Gaztelumendik agurrean berean erakutsi zigun zenbat konplexutasun datzan bere barnean eta konplexurik gabe zeinen ongi taulartzen dituen. Saio berean agurtu gintuen Aitor Mendiluzek «ni naizena ekarri nahi nuke ahora/ tarteka lortzen badet zerbait izango da/ ia zer kontatzen den

gidoitik kanpora» kantatuz, baina bera plan seguru bat da, ideiak gudian ezarri eta neurri eta metrika perfektua duen zelaira ekarriz. Sustrai Colinak Baionan agur hau bota zuen: «Nahiz ur tanta bihurtzen den artean laino/ Aturri ailegaten den Kantauriraino/ nik itsasora salto egitea baino/ nahiago ibaian gora jo zuenganaino/ heltzeko emozioen iturbururaino». Hala egin du, eta ilargira begira jarri gaitu, erdi betea badago, txapelaren punta dela sinets dezagun. Ametsek berriz, Donibane Garazin agurrarekin sintesi bat egin zigun, zuzen goazen jakin genezan «Ta bide batez nondik joaten da Garazitik Iruñara/ erromes batek esan dit handik Arnegi ta Orreaga, ta Xalbadorrek hobe Esnazu Kintoa ta Urkiaga, baina onena ta ederrera izango da beharbada, sekula inor pasa gabeko bidetik joaten bagara».

Eta bide horretan, Maialen Lujanboren agurraren zain nago. •

86



**Mirari
MARTIARENA
IRAOLA**

86 egun pasatu dira Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia hasi zen egunetik. Bueno, Getxon lehen kanporaketa jokatzen zen egunetik. Izan ere, inguruan bertsolari, gai-jartzaile, epaile edo antolatzailereren bat izan duenarentzat askoz ere lehenago hasi zen. Horrek elkarbizitzan dakartzan albo kalte guztiekin.

Beti esaten da, txapelketak baduela gozotik bezainbeste gazitik. Badakigu txapelketa gogorra dela, baina gustatu egingen zaigu. Lehiak sortzen duen morboa,

puntuazioen gorabeherak, batzuen pozak eta besteen penak. Eta bertsozale orok barruan duen epaile orojakilearen ahotsa, beti arrazoi duena eta beti besteak baino gehiago dakiena.

Gauza asko gustatu zaizkit txapelketa honetan, bertsolari eta bertso asko. Baina bereziki azpimarratuko nuke azaldu direla diskurtso berriak, ikuspuntu eta gaiei heltzeko molde berriak. Agian nire egunerokoan gertukoak ditudanak, azken urteetako plazetan entzun direnak, baina Txapelketa Nagusi batean leku oso

gutxi izan dutenak. Emakumeen ahotik entzun ditut neronek hitzez hitz abestuko nituzkeen bertsoak, bertsotan jakingo banu behintzat. Eskerrik asko beneran.

Bost urte joan dira azken Txapelketa Nagusiko finaletik, 86 egun abenduaren 18arekin amesten hasi ginenetik eta Iruñea deklinatzen ez dugu ikasi oraindik.

Behin esan nuen bertsolaritza sekta bat zela. Baina aizue, zer sekta ederra den, nahiz eta batzuetan errimatzen du-